

Ekainaren 5eko 106/2001 Foru Dekretua; horren bidez Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi da

(BAO ekainaren 11koa)

10. Artikulua. Eskualdaketeekin berdinetako egintzak.

1. Zergaren likidazio eta ordainketaren ondorioetarako, ondare eskualdaketatzat joko dira:

- B) Aitortutako adjudikazio-gaindikinak, Kode Zibilaren 821, 829, 1.056 (bigarrena) eta 1.062 (lehenengoa) artikuluetan eta funts berean oinarritutako Foru Zuzenbideko xedapenetan xedatutakoa betez sortzen direnak izan ezik; batez ere, baserria bere etxaldearekin Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilean araututako eran dohainik eskualdatzean sortzen direnak izan ezik

4. Artikulu honetako 2. eta 3. idatz-zatietan xedatutakoaren ondoretarako, ez da adjudikazio-gaindikintzat joko ezkontide edo izatezko bikoteko kide (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikotea) alargunari edo zati alikuotaren jaraunse legatu-hartzaileetako bati ohiko etxebizitza edo baserria eta haren lurrak eskualdatzea, baldin eta haien balioa, jaraunspen osoarekiko, adjudikatarioaren jaraunspen-kuota baino gehiago bada.

27. Artikulua. Foru ateraketa eta lehentasunarekin eskuratzeko eskubidea

1. Lurralde irekian dauden oinetxeko ondasunak besterentzen direnean, enborreko ahaideek, foru deialdia egin ondoren, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibila aplikatu eta ondasunak lehentasunarekin eskuratzeko eskubidea baliarazten badute, eskualdaketa-balioa perituak tasatutako prezioa izango da, halakorik eginez gero.

2. Oinetxeko ondasunak besterendu aurretik foru deialdirik egin ez eta ondorioz enborreko ahaideren batek, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legearen I. Liburuko V. Tituluan araupetutako foru ateraketaren eskubidea erabiliz, besterentzea deuseztatzen badu, eskualdaketa-balioa enborreko ahaideak ordaindu beharreko prezioa finkatzeko izendatzen diren pertsonen egiten duten peritutasazioaren emaitzako kopurua izango da, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibila aplikatuz. Hala gertatzen denean, erosleak ordaindutako zerga itzul daakiola eskatzeko eskubidea izango du, araudi honen 119. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

3. Aurreko idatz-zatietan ezarritakoa gorabehera, eratziki beharreko gutxieneko balioa zehazteko arauz ezarritako arau teknikoetan aipatutako oinetxeko ondasunak eskualdatzen direnean, araudi honen 93. artikuluan balioak egiaztatzeke ezarritako prozedura aplikatuko da

90. Artikulua. Salbuespen objektiboak.

Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik salbuesita daude ondoko eragiketa hauek:

- 2. Legezko atzera-eskuratzearen bidez eskualdatzea, hura jasaten duen eskuratzailerak Zerga lehendik ordaindua badu. Ez dira salbuespen horretan sartuko Euskal Herriko Foru Zuzenbideari buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legearen I. Liburuko V. Tituluan araupetu den foru ateraketako eskubidea baliatzearen ondoriozko eskualdaketak; beraien ziozko zerga-ordainketa araudi honen 27. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da.

- 3. Aurreko paragrafoetan aipatutako balizkoetan, berdin tratatuko dira izatezko bikoteei buruzko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikoteetako kideek egiten dituzten ekarpenak, adjudikazioak eta eskualdaketak ere.

- 6. Lurzatiaren baterakuntzak eragiten dituen eskualdaketak eta gainerako egintza eta kontratuak, landalurreko finken nahitaezko trukaketak, behar bezala baimendutako borondatezko trukaketak, eta berrogei urtetik gorako errentamenduetan, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilean araupetutakoari lotuz, lehentasunarekin eskuratzeko eskubidea baliaraztearen ondoriozkoak, baldin eta onibarra eskuratu eta hurrengo sei urteetan eskualdatzen ez bada.

- 16. Etxadiaren eta beraren jabegoen jabari osoa edo haien biziarteko gozamina enborreko ahaideei kostubidez eskualdatzea, baldin eta finka nekazaritza, basozaintza edo abeltzaintzako ustiapenerako bada eta eskualdatzailerak berak ustiatzen badu. Salbuespena aplikatuko bada, eskuratzailerak eskuratu eta hurrengo sei urteetan egin behar ditu jarduerak, eta egin ere berak zuzenean. Pertsona bat batez ere nekazaritza, basozaintza edo abeltzaintzako ustiapenean ari dela ulertuko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondoretarako ekonomi jardueren edo lan pertsonalaren etekin gehienak horrextan eskuratzen dituenean.